

ERAKARTZAILE NAGUSIA

Antonio del Campo

Guk dakigunez behintzat, erlatibitate-teoria sortu zenez geroztik erreferentzi sistema inertzial guztiak baliokide dira eta ez dago erreferentzi sistema absoluturik noski, hau da, abiadura absoluturik. Unibertsoaren kontzeptu hau fisikari guztiek onartu dute.

Mekanika klasikoaren kontzeptu asko, desagertu egin da.

Esate baterako hurrengo galdera honek ez dauka zentzurik fisika modernoaren esparruan: "Mementu honetan Lurra dagoen lekutik, zein distantziatarra egongo da urtebete barru?"

Lekuak, tokiak, ez dira existitzen Mekanika klasikoan bezala. Erreferentzi sistemekiko koordinatuak bakarrik existitzen dira.

Unibertsoa ez da gauza guztiak dauden leku handi bat; mementu batean gauzak leku handi horretako toki batzuetan egon eta gero higidurari esker beste toki batzuetara joaten direneko lekua alegia. Beraz "leku" erlatiboak badaude, baina "leku" absoluturik ez.

Beste era batera esanda, "eterra" edo fluido arin famatua ez da existitzen.

Gorputzak ez dira "Ortzean zehar" (arrainak uretan edo hegazkinak airean bezala) higitzen. Gorputzik gabe ez dago Ortzerik. Gorputz guztien multzoa da Unibertsoa eta besterik ez.

Hala ere fisikari batzuk, burubelarri ibili dira sistema inertzialen izaera sakona aztertzen.

"Investigación y Ciencia" 87ko azaroaren alean argitaratutako "Galaxien desfile ikusgarria" izeneko artikulua oso interesgarria iruditzen zaigu.

Ez dugu hemen artikulua hori sakonki aztertuko, baina hor agertzen diren esaldi

batzuk aipatuko ditugu.

Hona hemen aipaturiko artikuluan irakurritako zenbait esaldi:

"Gure Talde Lokalaren higidura Unibertso osoarekiko"

"Masa erakartzailea osatzen duten galaxiak geldirik daude mikrouhinen erradiazioarekiko".

"Gure lantaldeak eta beste zientzilari-talde batzuek, unibertsoaren distantzia handienetaraino ikertu dute, erreferentzi sistema inertzial nagusiaren bila, hau da, hondoko mikrouhinen erradiazioarekiko geldirik dagoen sistemaren bila".

Guzti honekin zera ikusten dugu: Elhuyar-en argitaratutako "Alefh triedroa" artikulua idazterakoan, beste zientzilari moderno batzuen eritziarekin bat gertozela. (Ikus Elhuyar 9,2,1983: 161-171. orr).

Ondorio bezala hau esan dezakegu: Aldiune bakoitzean Alefh triedroarekiko (unibertso osoaren inerti elipsoidearen ardatz nagusiek osatutako triedroarekiko) hondoko mikrouhinen erradiazioa geldirik dago, triedro honekiko abiadura konstantez higitzen diren sistemak inertzialak dira, inerti sistema hauekiko argi-izpiak zuzen higitzen dira eta sistema hauekiko argiaren abiadura konstantea da.

Umberto Eco-k laster argitaratu behar duen hurrengo elaberrian, Foucault-en penduluaren ideia aipatzen da.

Ikusten dugunez, batzuetan Unibertsoari buruzko ideia batzuk ez dira zientzi liburuetan bakarrik agertzen.

Alefh izena ere Borges-en liburu batetik hartu genuen.